# 10 Ekosistema digitalean komunikazio klimatikorako AUKERA

## 01. Formatu erakargarriak arreta eta emozioa pizteko

Ekosistema digitalak formatu komunikatibo erakargarri eta indartsuak hartzen ditu barne, krisi klimatikoari buruz komunikatzeko.

## 02. Konponbideetan oinarritutako komunikaziorantz

Aktibismo klimatiko digitalak potentzial handia du etorkizunera begirako konponbideetan oinarritutako komunikazioa garatzeko.

## 03. *Lifestyle*, narratiba mobilizatzaile gisa

Ingurune digitalek espazio egokia eskaintzen dute bizimoduan oinarritutako narratibak komunikatzeko, jasangarritasunerantz hurbileko eta eskuragarriak diren ekimenak sustatuz.

## 04. *Hashtag*ak aktibismoa bultzatzeko

Hashtivismoak, edo hashtag (#) bidezko aktibismoak, aktibismo klimatiko digitala indartzen du, krisi klimatikoari buruzko mezuak mundu mailan biral bihurtzea ahalbidetu.

## 05. Klimaren aldeko komunitateen sorrera

Elkarrekintza etengabeak eta konektibitate globalak informazioa partekatzen duten eta ekintza klimatikoan oinarritutako identitate kolektiboak eraikitzen dituzten komunitateen sorrera sustatzen dute.

## 06. Entzute aktiborako aukerak

Sare sozialetako entzute aktiboak eta datuen analisiak pertzepzio sozialak hobeto ulertzea ahalbidetzen dute, komunikazio-estrategia eraginkorragoak diseinatzeko funtsezkoa dena.

## 07. Salaketa herritarrerako espazioak

Sare sozialek herritarren eskaerak ikusgarri egiteko eta krisi klimatikoaren aurrean politika eta ekintzak eskatzeko presioa egiteko espazioak eskaintzen dituzte.

## 08. Muturreko fenomeno meteorologikoekin lotura

Muturreko fenomeno meteorologikoen biralizazioak potentzial handia du haien inpaktuei eta krisi klimatikoarekin duten loturari buruzko kontzientzia berehalakoa sortzeko.

## 09. Ikuspegi *glokal*en bultzada

Sare sozialek ikuspegi glokalak (globalak + lokalak) sustatzen dituzte, klima-kezka globala komunitate-mailako ekintza zehatzekin lotuz.

## 10. Ekosistema itxaropentsua justizia klimatikoarentzat

Bide luzea geratzen bada ere, ekosistema digitalak aukera ematen du egiturazko desberdintasunak ikusarazteko eta krisi klimatikoaren inguruko botere narratiboa birbanatzeko.